

Mexiko "lindo y querido"

Andoni Etxeberria

Chichén Itzá

Iparaldeko auzoko erraldoiaren itzalpean bizi den herrialde honek denerarik biltzen du 6000 km²ko azalera: kolonurreko kulturen turismo arkeologikoa, biziraundako kultura indigenen esentzia, espainiarren eraikin kolonialak, munduko hondartzarik ezagunenak edota lurreko hirugarren hiririk handiena.

Mexiko (náhuatl hizkuntzatik: Mēxihco [Mextli bizi den lekua] Ipar Amerikan kokaturiko herrialde erraldoia da. Ozeano Bare eta Atlantikoak mugatzen dute mendebalde eta ekialdetik, eta iparraldeko muga AEBekin konpartitzen duen bitartean, hegoaldean Guatemala eta Belize dauzka auzokide.

Klimari dagokionez aniztasun handiko herrialdea dugu. Kanturreko paraleloak herrialdea desertu gune eta tropikal banatan banatzen ditu baina hala ere, erliebeak eta ozeanoen presentziak banaketa horretan eragin handia dute.

Lurralde hau aberastasun arkeologiko eta kultural handikoa da: Ameriketako biztanleria indigena handiena duen herrialdea da, eta aldi berean munduko estatu gaztelaniadun handiena. Haien arbasoek dagoeneko, garairako oso altua zen jakintza maila lortu zuten eta Mexikarrak berez, lehenak izan ziren munduan jende guztia hezten, genero edo klasea kontuan hartu barik.

Mexiko D. F.: Fridaren megalopolia


Frida Kahloren jaioterria munduko hiririk handiena da azalera kontuan hartuta. Garai bateko Tenochtitlan hirian, azteken antzinako hiriburuan, hauen garaiko arkeologi guneak aurki daitezke oraindik ere. Espainiarrek aldiz, kolonizazio eraikinak laga zituzten, katedral "metropolitano" erraldoia kasu. Halako hiri batek jakina, kultura eta aisiarako eskaintza amaigabea dauka, jatetxe, pub eta gaueko bizitzarako osagai guztiak.

Era berean, hiriburuan aipatzekoak dira bai Antropologiako Museo Nazionala eta bai Arte Ederretako palazioa.

Bestalde, ezin laga aipatu gabe Coyoacan auzoan kokatzen dela Frida Kahlo jaiotzen entzun zuen museo-etxea. "Casa Azul" delakoa, auzo honetako Londres 247 kalean dago eta bertan, margolariaren zenbait margo aurki daitezke, baita bereak ziren hainbat objektu pertsonal.

Zentrua: Aztekek eta espainolak

Mexikoko zentroa mundu prehispanikoko eszenari nagusia izan zen, eskualde honetako bihotzean inperio mexikak edo aztekek bere gune printzipala izan baitzuen. Gerora, espainiarren agindupean, lurralde hau Mexikoko arte eta arkitektura kolonialetan aberatsenetakoa bihurtu zen. Horren adibide da Puebla hiria, alde zaharreko eraikin kolonialen edertasunagatik UNESCO-k gizateriaren ondare izendatu zuena. Era berean, Mexikoko zentroan aurkitzen den beste hiri kolonial aipagarri bi Querétaro eta San Luis Potosí dira.





Puebla eta Mexiko D.F hirietako katedralak.

Iparraldea: desertuen muga galduak

Iparraldean, Desierto Chihuahuense lautada lehorra mugatuz Sierra Madre Occidental eta Sierra Madre Oriental mendilerroak altxatzen dira. Inguru honetako gune natural interesgarriena Las Barrancas del Cobre dira, munduko arroiarik altuenak. Bestalde, hiriei dagokienean Chihuahua hegoaldeko meategietako herriak, Sonorako Álamos herria eta Zacatecas dira aipagarrienak.

Ipar mendebaldean baita ere, Baja California penintsula dago, hondartza amaigabeak eta baleak ikustatzeko aukera eskaintzen duen lur beso luzea.

Itsas Bareko kostaldea: Mariachien tekila Acapulco

Itsaso Bareko kostaldean Mexikoko turismo gune famatuena daude. Acapulco eta Puerto Vallarta hirietan, bidaiariak hondartza eta eguzkiko turismorako beharrezko

zerbitzuak aurkituko ditu. Baina horretaz gain, ia bi mila kilometrotako kostalde honek badu beste eskaintzarik: Jalisco estatutik omen datoz bai Mariachi famatuak eta baita tekila ere, mexikarren edari nazionala.

Hegoaldea eta golkoa: Indigenen Mexiko

Duda barik, Mexikoko indigenen esentzia deskubritzeko leku paregabea da lurralde hau, kolonizazioaren genozidioari biziraun baitio hein handi batean. Lurralde honetan zibilizazio handiek haien kokagunea izan zuten: olmecak kostaldetik izan ziren eta mayak aldiz, Chiapaseko lurralde menditsuetan. Bertako paisaia koloretsuak eta talde etnikoen jai, ohitura eta gastronomia edonork miresteke modukoak dira.

Yucatan

Penintsula honek Mexikoko golkoa Karibe itsasotik banatzen du. Karibeko hondartza turistikoengatik da ezaguna (Cancún, Playa del Carmen, Tulum, Cozumel, Isla Mujeres) baita mayen aurriengatik (Chichén Itzá, Tulum) eta Chicxulub-gatik, zenbait teoriaren arabera, orain dela 65 milioi urte dinosaurusak desagertzeko erantzule izan zen meteoritoa jauzi zeneko gunea. **F**



Antropologiako Museo Nazionala eta Arte Ederretako palazioa.



Los feminicidios de Ciudad Juárez

Ciudad Juárez es una ciudad fronteriza del norte de México, que limita con la conocida localidad estadounidense de El Paso. Esta ciudad se hizo conocida en todo el mundo a comienzos de los años noventa, a cuenta de la serie de asesinatos de mujeres que empezaron a suceder en el año 1993. Desde aquellas fechas hasta hoy en día, más de 460 mujeres jóvenes y pobres han sido asesinadas, y otras 600 siguen desaparecidas. Además, los allegados de las víctimas denuncian que las autoridades ni se esfuerzan en esclarecer los crímenes, ni en castigar a sus responsables. En respuesta a ello, varios familiares de las víctimas se unieron desde 2001 en la asociación "Nuestras hijas de regreso a casa", y siguen luchando por el fin de la violencia y el reconocimiento de sus derechos.

El caso de Ciudad Juárez puede considerarse la punta del iceberg, pues las muestras de machismo en la sociedad mexicana no son ninguna excepción, incluso las turistas extranjeras suelen experimentarlo.